

ESPAZIOAK LAGATZEKO ARAUAK

Espazioak lagatzeko baldintza orokorrak

1. Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak edozein partikular, erakunde edo elkarteren esku jartzen ditu ekitaldi aretoa eta erabilera anitzeko beste areto batzuk, baldin eta liburutegi publikoaren misioarekin eta helburuekin bat datozen jarduerak egiteko bada, eta jarduera horiek egiteak ez badu eragozten edo kaltetzen zentroaren ohiko funtzionamendua, ez eta Kultura Etxearen kultura programazioa bera ere. Bereziki balioetsiko da jarduera liburuekin eta irakurketarekin zuzenean lotuta egotea edo interes kultural aitortua izatea.
2. Ekitaldi aretoa irekita dago edozein proposamen kultural edo artistikori: biltzarrak, hitzaldiak, mahai inguruak, zikloak, emanaldiak, liburu aurkezpenak, literatura topaketak, kontzertuak eta entzunaldiak, proiektzioak, zinema, antzerkia, eta abar.
3. Kultura Etxeak ez du bere gain hartuko erakundetik kanpoko partaideek bertan egiten diren ekitaldietan ematen dituzten iritzien erantzukizunik.
4. **Nahi duen oro** sartu ahal izango da jardueretara, lekuak bete arte, eta **doakoa** izango da.

Espazioak erabiltzeko eskaerak

1. Eskaera idatziz egin behar da, webean erabilgarri dagoen espazioak erreserbatzeko [formularioaren](#) bidez.
2. Espazioa erabiltzeko eskatzen den eguna baino 90 egun lehenago egin behar dira eskaerak, gehienez, eta 10 egun lehenago, gutxienez.
3. Aldaketaren bat egonez gero edo jarduera bertan behera utziz gero, horren berri eman beharko zaio Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari, helbide elektronikoa honetara idazki bat bidaliz: ccultura@araba.eus

Eskaerak onartzea eta ukatzea

1. Kultura Etxeak eskubidea izango du:
 - a. Liburutegi publiko gisa dituen misioarekin eta helburuekin bat datozen edo bere kultura programazioaosatzen duten eskaerak soilik onartzeko.
 - b. Instalazioen lagapena ukatzeko, baldin eta egin nahi diren ekitaldien iraupena, edukia edo baldintza bereziak oztopo badira espazioak beste jarduera batzuetarako erabiltzeko edo gainerako zerbitzuen funtzionamendu normalerako.

- c. Ez onartzeko merkataritza jarduerarik edo nahitaezko neutraltasun politiko, ideologiko edo erlijiosoa urra dezakeen jarduerarik, ezta diskriminaziozko ekintzarik, ekintza sektariorik, xenofoborik edo legez kanpoko ekintzarik ere.
2. Posta elektronikoz baieztatu edo ukatuko da espazioak erreserbatzeko eskaera, jasotzen denetik astebeteko epean.
3. Kultura Etxeak ekitaldiaren datak, iraupena eta gainerako xehetasunak adostuko ditu erakunde edo pertsona eskatzailearekin, gainerako programazioa kontuan hartuta.
4. Behar izanez gero, Kultura Etxeak beretzat gordetzen du aldez aurretik onetsitako jardueren datak edo ordutegiak gutxienez hilabete lehenago aldatzeko eskubidea.
5. Kultura Etxeak ekitaldiari buruzko informazio osoa izan beharko du (behin betiko izenburua, hizlariak, ordutegia, behar teknikoak...) jarduera egin aurreko hilaren 15a baino lehen.

Jardueraren prestalanak eta garapena

1. Baldin eta erakunde antolatzaileak aretoan dauden baliabideez bestelakoren bat behar badu, hark zuzenean kontratatu beharko du, baina aurrez Kultura Etxeari baimena eskatu beharko dio, baliabide tekniko horiek Kultura Etxeko instalazioekin bateragarriak izango direla ziurtatzeko.
2. Espazioaren edukiera errespetatu beharko da eta Kultura Etxeak ezarritako erabilera baldintzak bete beharko dira, bai eta edukierari, segurtasunari, higiene eta osasun arauari, egile eskubideei eta jardueraren antolaketari eta garapenari eragin diezaioketen bestelakoei buruzko indarreko lege arauak ere.
3. Jarduerak irauten duen bitartean, erakunde antolatzaileko arduradun batek egon beharko du beti bertan.
4. Liburuen, diskoen eta abarren aurkezpenak direnean, bi ale emango zaizkio liburutegiari, bere funtsetan sar ditzan. Liburuen salmenta puntu bat jarri nahi izanez gero, aretoa erreserbatzeko eskaeran jakinarazi beharko da.
5. Jarduera egiteko eskaera aurkezten duen erakundea edo pertsona izango da instalazioen erabileraren arduraduna, baita haiek izan ditzaketan kalteena ere, eta bere gain hartu beharko ditu kalteak konpontzeak eragindako gastuak.
6. Areto bakoitzak altzari eta ekipamendu propioak ditu. Dauden moduan egon behar dira. Mugitu behar izanez gero, hasieran zeuden bezala utzi beharko dira.
7. Aretoetara ez da janaririk, edaririk edo maskotarik sartu behar, gidatze edo segurtasun lanak egiten dituzten maskotak izan ezik.

Laguntza zerbitzuen tarifak

1. Espazioak doan lagatzen dira; beraz, Kultura Etxearen ordutegiaren barruan egiten diren eta laguntza teknikorik behar ez duten jarduerak ez dute kosturik eragingo.
2. Laguntza teknikoa eta/edo zaintza behar bada jarduera Kultura Etxearen ordutegitik kanpo egiten delako, urtarrilaren 11ko [5/2022 Foru Dekretuan](#) espazioak erabiltzeko ezarritako tarifak aplikatuko dira.

Langile mota	Prezioa orduko
Teknikariak ez diren langileak (atezaintza)	19 euro orduko
Teknikariak (irudi eta soinu teknikariak)	23 euro orduko

Fakturaziorako orduen zatiketa ordu laurdenetan ezartzen da.

Zabalkundea

1. Antolatzaileek berariaz adierazi beharko dute sortzen dituzten agirietan eta zabalkunde eta publizitaterako material guztian Arabako Foru Aldundiaren laguntza izan dutela. Horretarako, Kultura Etxeak Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen eta Arabako Foru Aldundiaren logoak emango ditu.

Liburuxka, kartel eta zabalkunde material guztietan bete beharko da elebitasunari eta genero berdintasunari buruzko legeria.

2. Arau hauek onartze hutsak bete egin behar direla esan nahi du.